

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA****Zk-6232**

236/2002 DEKRETUA, urriaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan, lan legepeko pertsonalarentzat eta Bigarren Hezkuntzako Irakaslegoaren Kidegoko, Lanbide Heziketako Irakaslego Teknikoaren Kidegoko eta Erdi Mailako Ikasketetako Institutuetako Irakaslego Bereziaren Kidegoko funtzionarioentzat gordetako lanpostu-zerrenda onartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legearen II. tituluko I. kapituluak —irakaskuntzako funtzio publikoa antolatu eta arautzeari buruzkoak— arautzen du lanpostu-zerrenden figura, bai eta lanpostu-zerrenda egitean bete beharreko oinarriko irizpideak eta jarraitu beharreko prozedura ere.

Bestalde, Lege horren 5. artikuluan daude ezarritako lanpostu-zerrenden gutxieneko osagaiak: lanpostuaren izena; lanpostua atxikita duen ikastetxea, ikuskaritza teknikoko zerbitzua edo ikerketa eta irakaskuntzari laguntzeko zerbitzua eta, hala balegokio, hezkuntza-administrazioaren lurralde esparrua; lanpostua betetzeko beharrezko diren baldintzak, eta horien artean nahitaez, izendatutako hizkuntza-eskakizuna, eta, hala badagokio, derrigortasun-data; lanpostu bakoitzari zein talde, kidego edo maila edo lan-arloko kategoria dagokion; eta azkenik, funtzionarioentzat gordetako lanpostuak izanez gero, aipaturikoen gain, honako hauek ere adieraziko dira: lanpostuari dagokion berriazko osagarria eta lanpostua betetzeko sistema.

Era berean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 5. artikuluko h) letrak Gobernuari aitortzen dio lanpostu-zerrendak onartzeko aginpidea, eta horri jarraituz, 2/1993 Legearen 4. artikuluko l) letrak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari aitortzen dio irakasleen lanpostu-zerrenden proposamenak egiteko eskumena.

Lanpostu-zerrendak etengabe eguneratu behar izaten dira, ikasturtea aldatzean ikastetxe bakoitzean agertzen diren egoera berriei aurre egin ahal izateko. Hori dela eta, 2002-03 ikasturteari dagokion eguneratzea finkatu beharra dago.

Lanpostu-zerrenda hau egiteko, martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua (apirilaren 2ko EHAA) aldatzen duen urtarrilaren 18ko 6/2000 Dekretuak Araubide Orokorreko Irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetan irakaskuntzarako diren lanpostuei hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak zehazteko ezarri zituen irizpideak bete dira.

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN****Nº-6232**

DECRETO 236/2002, de 15 de octubre, por el que se aprueba la relación de puestos de trabajo reservados al personal laboral y a funcionarios pertenecientes al Cuerpo de Profesores de Enseñanza Secundaria, Cuerpo de Profesores Técnicos de Formación Profesional y Cuerpo de Profesores Especiales de Institutos Técnicos de Enseñanzas Medias, en los centros docentes públicos de niveles no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos docentes de enseñanza no universitaria de la CAPV regula en el capítulo I de su título II, dedicado a la estructura y organización de la función pública docente, la figura de las relaciones de puestos de trabajo, señalando con respecto a ella los principios básicos así como los cauces procedimentales que deben observarse en su elaboración.

De esta forma, el artículo 5 del citado texto legal dispone el contenido mínimo que en cualquier caso deben contener las citadas relaciones: denominación; centro docente, servicio de Inspección Técnica o de Investigación y Apoyo a la docencia, y, en su caso el ámbito territorial de la Administración educativa al que se halle adscrito; los requisitos exigidos para su desempeño, entre los que necesariamente debe figurar el perfil lingüístico asignado y la fecha de preceptividad; la adscripción al grupo, cuerpo o escala o categoría laboral que en cada caso corresponda; y por último, tratándose de puestos de trabajo reservados a funcionarios, el complemento específico y el sistema de provisión.

Por su parte, la letra l) del artículo 4 de la Ley 2/1993, en congruencia con la letra h) del artículo 5 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de Función Pública Vasca que reconoce la competencia para la aprobación de las relaciones de puestos de trabajo al Gobierno, reserva la facultad de propuesta de las relaciones de puestos de trabajo docentes al Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

Las relaciones de puestos de trabajo han de ser objeto de una permanente actualización al objeto de adaptarse a las nuevas situaciones generadas en los centros como consecuencia del cambio de curso escolar. Es necesario, por consiguiente, establecer la actualización correspondiente al curso académico 2002-2003.

En la elaboración de la presente relación de puestos de trabajo se han seguido los criterios para la determinación de los perfiles lingüísticos y las fechas de preceptividad establecidos por el Decreto 6/2000, de 18 de enero, por el que se modifica el Decreto 47/1993, de 9 de marzo.

Horren guztiaren indarrez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposaturik, Euskadiko Eskola Kontseiluaren txostena ikusirik eta 2002ko urriaren 15eko Jaurlaritzaren Kontseiluak alde aurretik eztabaidatu eta onarturik, honakoa

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Onartzea honako kidegoetako funtzionarioentzako gordetako 2002-2003 ikasturteko lanpostu-zerrenda: Bigarren Hezkuntzako Irakaslegoaren Kidegoa (A Taldea), Lanbide Heziketako Irakaslego Teknikoaren Kidegoa (B Taldea), iraungitzeko dagoen Erdi Mailako Ikasketetako Institutuetako Irakaslego Bereziaren Kidegoa (B Taldea), bai eta Dekretu honetako I. eranskinean jasota dauden Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako lan-legepeko pertsonalarena ere.

2. artikulua.— Onartzea Dekretu honetako II. eranskinean jasota dauden Euskal Autonomia Erkidegoko Pertsona Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako Bigarren Hezkuntzako Irakaslegoaren Kidegoko funtzionarioentzako (A Taldea) gordetako 2002-2003 ikasturteko plazak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.— Eranskinetan jasotako lanpostu-zerrendetako lanpostuek ondoren zehazten diren berariazko osagarria dute egotzita hileroko, eta zenbateko hori osorik jasoko dute soldatan hamabi hilabetez. Hona hemen zenbatekoak:

- Bigarren Hezkuntzako Irakaslegoaren Kidegoa: 630'87 Euro.
- Lanbide Heziketako Irakaslego Teknikoaren Kidegoa: 790'71 Euro.

Bestalde, zenbateko horri beste osagai bat gehituko zaio, berariazko osagarriaren baitan dagoen dedikazio bereziari dagokiona, eta osagai hori jasoko du lanpostua, alde aurretik ezarrita dagoen prozedurari jarraiki lehen maila aitortzegatik eskuratu duen pertsonalak. Hori dela-eta, 2002. urterako dedikazio bereziagatik lanpostu bakoitzari dagokion hileko zenbatekoa, gutxira, 75'99 Eurokoa da.

Zuzendaritzako ardurengatik jaso beharreko ordainsariak unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen ordainsariak ezartzen dituen ekainaren 26ko 177/1990 Dekretuan daude ezarrita, eta unibertsitatez kanpoko irakaslego publikoaren lan-baldintzak arautzen dituen Hitzarmenean jasotakoaren arabera eguneratuko dira.

Bigarrena.— Dekretu honetako eranskinetan jasotakoaren arabera, 1. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak derrigortasun datarik gabekoak izan daitezke edo derrigortasun data beteta izan dezakete; 2. hizkuntza

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, conocido el informe del Consejo Escolar de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada el 15 de octubre de 2002.

DISPONGO:

Artículo 1.— Se aprueba la relación de puestos de trabajo correspondientes al curso académico 2002-2003, reservados a funcionarios del Cuerpo de Profesores de Enseñanza Secundaria (Grupo A), Cuerpo de Profesores Técnicos de Formación Profesional (Grupo B), Cuerpo de Profesores Especiales de Institutos Técnicos de Enseñanzas Medias (Grupo B) en situación «a extinguir», y Personal Laboral en los Centros públicos de Enseñanza Secundaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que figura en el Anexo I de este Decreto.

Artículo 2.— Se aprueba la relación de puestos de trabajo correspondientes al curso académico 2002-2003 reservados a funcionarios del Cuerpo de Profesores de Enseñanza Secundaria (Grupo A) en los Centros públicos de Educación de Personas Adultas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que figura en el Anexo II de este Decreto.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.— Los puestos de trabajo incluidos en las relaciones anexas tienen asignados mensualmente el complemento específico que a continuación se detalla, en cuantías íntegras referidas a doce mensualidades:

- Cuerpo de Profesores de Enseñanza Secundaria: 630'87 Euros.
- Cuerpo de Profesores Técnicos de Formación Profesional: 790'71 Euros.

En adición a las cuantías anteriores, existirá un componente de especial dedicación integrado en el complemento específico, que será devengado por el personal que ocupa los distintos puestos de trabajo en virtud de la acreditación del primer Grado, conforme al procedimiento establecido. En este caso y para el ejercicio del año 2002, las cuantía mensual íntegra del complemento de especial dedicación a percibir en cada puesto de trabajo será de 75'99 Euros.

El desempeño de funciones de carácter directivo dará derecho a las percepciones establecidas en el Decreto 177/1990 de 26 de junio sobre retribuciones de los funcionarios docentes no universitarios, actualizadas según proceda, en el Acuerdo Regulador de las condiciones de trabajo del personal docente público no universitario.

Segunda.— Los puestos de trabajo de Perfil Lingüístico 1 pueden ser sin fecha de preceptividad y de preceptividad vencida, según figura en las relaciones contenidas en los Anexos de este Decreto, mientras que los

eskakizuna dutenek, ordea, guztiek dute derrigortasun data beteta.

Hirugarrena.— Postu ibiltaritzat joko dira irakas-kuntza lana bi ikastetxe edo gehiagotan egitea eskatzen duten plazak. Era horretako lanpostu batean aritzeak joan-etorrietarako indenmizazioa jasotzeko eskubidea dakar, eta indenmizazioaren zenbatekoa unean bertan indarrean dagoen araudian zehaztutakoa izango da.

Laugarrena.— Dekretu honetako eranskinetan jasotako lanpostuak betetzeko erabiliko den sistema Lekualdatze Lehiaketarena izango da.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko urriaren 15ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
M.ª ANGELES IZTUETA AZKUE.

Eranskinak ale gehigarri
bereizian argitaratzen dira

de Perfil Lingüístico 2 son siempre con fecha de preceptividad vencida.

Tercera.— Se clasifican como puestos itinerantes aquellos en los que la acción docente se circunscribe a dos o más centros docentes. El desempeño de estos puestos dará derecho a la correspondiente indemnización por desplazamiento, en la cuantía que establezca la normativa vigente en cada momento.

Cuarta.— El sistema de provisión de los puestos de trabajo que figuran en las relaciones contenidas en los Anexos de este Decreto será el Concurso de Traslados.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 15 de octubre de 2002.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
M.ª ANGELES IZTUETA AZKUE.

Los anexos se publican
en suplemento aparte.